

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Txekiara joan eta Brno-ko herensugea jan

Laura Mintegi eta biok Txekiara gonbidatu gintuen Ainara Maiak, Euskara eta Euskal Kultura Brno-n eta Olomouc-en erakusten duen irakasleak, euskal literaturaz hitz egin genezan. Bidaia kurioosa zen, joan-etorria eta hango egoitza geuk ordaindu behar baike-tuen. Gero Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak hegaldia osorik ordaindu digu. Orain, espero dezagun hango gastuen kargu ere egitea. Han, Unibertsitateko Errektoretzan ostatu hartu genuen, horretarako prestatutako gela batzuetan. Apirilaren zazpian izan ziren lehen bi hitzaldiak: *Euskal Literatura XX. eta XXI. mendean* Laura Mintegirena; *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren bilakaera* Iñaki Zubeldiarena. Brno-ko Masarykova Univerzita izen handikoa da, bertara Txekiatik eta Eslovakiatik ikasle asko joaten baita. Eta Letren Fakultatean Hizkuntza Erromanikoez indar handia dute, besteak beste frantsesa, italiera, portugesa, gaztelania eta katalana erakusten baitira, eta horiekin batera euskara.

Bi hitzaldietan honako unibertsitate irakasleak izan genituen entzule: Daniel Vazquez, Athena Alchazidu eta Pavlina Svandova eta Ainara Maiaren ikasleak ere bai. Ondoren, Hizkuntza Erromanikoen zuzendari den Petr Kyslousek irakasleak harrera ezin hobea egin



DANI BLANCO

zizun bere bulegoan. Gero, bazkaltzeko ordua iritsi zen eta Pavlina Svandova eta Ainara Maia izan genituen “cicerone”. Hiriko jatetxe berezi batera eraman gintuzten eta han karta ezin ulertu. Orduan Pavlinak, bere pazientzia amaiezina erakutsiz, hainbat proposamen egin zizkigun. Eta entzun genuenean *Brno drak* (Brno-ko herensugea) janari bikaina zela, ez genuen zalantzarik izan, haur literaturaz hitz egin ondoren, herensuge bat janez bukatzea baino gauza egokiagorik ez baitago. Eta horixe egin genuen: Brno-ko herensugea jan. Esan behar da plater berezi hori txerri txuleta lodi samarra dela, patata puska egosi-frijituz hornitua, pipermin luzea platerean alderik alde, barruan herensugearen sua duela-rik.

Olomouc-eko Unibertsitatean, gazte jende ugari bildu zen hitzaldira eta Eduard Krc irakaslea ere bai. Espainiako kulturaz gain Euskal Herrikoa ere ezagutzen dute eta begirune handiko jendea da eta oso amultsua. Etxean bezalaxe sentiarazten zaituzte.

Ilunabarrean, Ainara Maiak euskaraz eta Pavlinak eta beste hiru ikasle txekieraz poesia errezitaldi hunkigarria eman zuten. Olerkiak Ainarenak ziren, Pavlinak txekierara itzulita. Ilunabar atseginarean eta Txekiako egonaldi gozoaren oroimena ez zaigu berehala ezabatuko. ■

« Entzun genuenean *Brno drak* janari bikaina zela, ez genuen zalantzarik izan, haur literaturaz hitz egin ondoren, herensuge bat janez bukatzea baino gauza egokiagorik ez baitago »

TXANDAN

Joseba Barandiaran



Izen-abizenak eta izana bat etortzea ez da hain arrunta. *Euskaldunon Egunkari*az harago, hori darabilt buruan, azken egunetan Amado Francoren berri izan nuenetik.

Deustun ikasitako gizona, Espainiako Ibercaja aurrezki kutxaren egungo presidentea da. 1945ean jaio zen Zaragozan, eta haren gurasoek pozez hartu zuten haur jaio berria mutila izatea; neska jaio balitz ere, Amada izena jarriko zioten: “Amada” esateko, noski. Gizona ezagutu gabe ere, egingo nuke izen-abize-

Izenaren habe

nak izanarekin bat etor daitezen lortu duela; zaila ere ez zioten jarri.

Baina Bizkaian bada beste adibide bat, korrikalarien artean aski ezaguna: Fortunato Vencedor du grazia eta espiritu olinpikoaren garaile jo daiteke gizona. 80 urte pasa dituela, uda zein negu, aste-buruz asteburu dabil Bilbo eta inguruetakoa –mundu osoko, beraz– lasterketetan. Omenaldiak ere egiten dizkiote, noski.

Bada izana izen-abizenen habe izateaz gain, esker-tzen diot bere ilobarik Amadorenekin ez ezkontzea; zer izan ere. ■